



2023-2024 ZELANDI KIROL JARDUERAK

ARAUTEGI OROKORRA

IZEN EMATEA:

Ekainaren 15etik 22ra 948 012 012 telefonora deituz, Zelandi kiroldegiko harrera, www.zelandikirolgun.com

ONARPEN-ZERRENDAK

Mezu elektronikoa bat bidaliko da zein talde eta ordutan inskribatzen den jakinarazteko (oso garrantzitsua da helbide elektronikoa hartzea)

ORDAINTZEKO MODUA

Liburuxkan agertzen den zenbatekoa BI ALDIZ ordaindu behar da ikasturte osoan (aldi bakoitzerako ordainketa bat). Ordainketa-egunak gogorarazteko mezu bat bidaliko da.

• **Abonatutako pertsonen ordainketa:** bankuko ordainagiriaren bidez. Abonatuei jardueraren ordainagiria igorriko zaie.

• **Abonatu gabeko pertsonen ordainketa:** txartelarekin edo Zelandi kiroldegian eskudirutan.

IGERIKETA: MAILA PROBA

Aldez aurretik izena eman dutenei posta elektronikoz jakinaraziko zaie proba egiteko ordua eta eguna: IRAILEKO LEHEN ASTEA. Proba egiten duten egun berean, dagokien mailako inskripzioa egingen da, kiroldegiko harreraren

Inprimakia www.zelandikirolgun.com orrian deskargatu ahal izango da eta datu pertsonalekin bete ondoren probara ekarri, maila zehaztu ezean.

JARDUEREI BAJA EMATEKO EPE BAKARRA

Lauhileko batetik bestera baja emateko epea bakarra izanen da: urtarrilaren 2tik 28ra (bigarren lauhilekoa: urtarrilaren 29tik ekainaren 1era).

Baja epearen barruan egiten ez bada, ulertuko da parte hartzaileak ikasturte osorako izena eman duela eta, beraz, jardueraren zenbateko osoa ordaindu beharko du.

Jarduera hasi ondoren, ez da inolako zenbatekorik itzuliko, ez joateko arrazoia edozein dela ere (ez da frogagiri medikorik onartuko). Baja formalizatzeko dokumentazioa BAKARRIK tramitatu daiteke Zelandi kiroldegiko harreran.

- Bi jardueratan edo gehiagotan izena ematen duen abonatuari % 10eko deskontua aplikatuko zaio.
- Izen-emate gehiago baldin badaude, zozketa bat egingo da, eta instalazioan abonatutako pertsonak izango dute lehentasuna.
- Pertsona bakoitzak bi talderen zozketan parte hartu ahal izango du (1. AUKERA eta 2. AUKERA) jarduera bakoitzerako, lehentasuna adierazita, baldin eta bietako batean bakarrik izena eman nahi badu. Oso garrantzitsua da inskripzioan zehaztea jarduera bat nahi duen (zozketan aukeratu beharreko bi aukerekin) edo bi jardueratan inskribatzen den (dagozkion beste bi aukerekin). Jarri Aukera laukitxoan: 1. aukera, 2. aukera edo BI JARDUERA. Ahal izanez gero, zozketa amaitzean kanpoan geratu den jendearekin talde berriak sortzea planteatuko da. Telefonoz deituko zaie.

JARDUEREN IRAUPENA:

Irailaren 18tik- ekainaren 1 arte.

- Pertsona bakoitzak nahi adina jarduera egin ahal izango ditu, eta jarduera bakoitzeko (egin beharrekoa) gehienez ere bi aukeratan eman ahal izango du izena. (Adibidea: aquagym egin nahi bada, bi ordutegi aukeratuko dira, lehentasuna zein den adieraziz; aitzitik, jarduera ordutegi jakin batean egin nahi bada, ordutegi horretan bat datozen bi jarduera aukeratu ahal izango dira, lehentasunezkoa adierazita). 1. ETA 2. AUKERETAN, LEHENTASUNA ZEIN DEN ZEHAZTUKO DA. Beharrezkoa izanez gero, zozketa egingo da (plaza baino izen-emate gehiago dagoenean) eta bi plazetako bat esleitzeko lehentasuna hartuko da kontuan.
- Parte-hartzaileei ez zaie deituko onartuak dauden edo ez jakinarazteko, mezu elektronikoa bidaliko zaie edo Ataboko harreran kontsultatu ahal izango dute.